

P. SARIÀ

Hain ate irekiaren aurrean,  
ziurtasuna baino lapurtzerik ez dago,  
haizeak lezake, eraman edo ekarri,  
giltza nahiz erantzun hutsalen bat,  
atarian egonik,  
nire odolaren odola saldu nueneko,  
atzerakontuetan katramilatuta,  
bultzada baten zain,  
bitxilore zurituen pabimentuan zutik,  
itzala makurtzen doakit,  
goroldio abiaduretan.

...

*Zidar ta urre.  
mairu herritik trostan  
lau zaldi zuri.*

Hasi, amaitu,  
bideak zizelkatu,  
itzulezinak.

Basamortu beltz  
distiran artesitu  
firmamentu hotz.

Hondar zuriak  
noiznahi kiskalgarri  
izotzez nauka

Egun hurkotik  
gauaren memoriak  
ezin ekarriz.

...

Erori berri,  
udazkenak, gehiegi  
ez zatozela.

Gotorlekuei  
ukabil, hots, setio,  
hain zain naukazu!

Arrasti gorra  
ezkutuko eztandaz  
goizalderarte.

Telefonoak  
garraisiz agortuta  
ezustean, zu?

...

"BIGARREN AUKERA"  
JMANOL SORONDO  
BALTASAR

*Berrehun urre,  
zazpi dupa eztitan,  
ardoa neuri.*

Dzangada labur  
egunaren zigorrak  
izerdi luze.

Zoriontasun  
dositan ziztatuak,  
ez dit balio.

Itzulpen antzu,  
transfusio odoltsu  
jario, putzu.

Haiku faltsu  
zain arrotzetan ibai  
alferrikaldu

Oraindik tente,  
min txikiak kolpeka  
makurtzen hasi.

...

Sukarri epel  
itxaropen txinparta  
biharko sapa.

...

Axolagabe,  
hitzaren letra bozan,  
forma hutsala.

Itsu haztamu,  
itsaso, arrain, amu,  
gaur, etzidamu.

Urraerraza  
isiltasun honetan,  
azal leuna.

Asfaltu, kristal,  
laino, leiho, izara,  
dena da zauri.

...

Herbeste gertu,  
aberria ahaztu,  
erretratu gor.

Galduta zaude  
bakardadeaz patria  
borrokaz kausa.

...

Alboko ohar  
enbataren erdian,  
askatasuna.

Egindakoa  
alferrik balitz ere  
bazen besterik

Bihurgunetsu  
kalekantoï zorrotzen  
erronkari men.

Hitzen segida  
bihurgune arrisku  
bolante ero.

...

Jausi erraza,  
lur erreak utzita  
ihes eginda.

Kearen hotsak,  
bertako suteetan  
ezer ez, gero.

...

*Aurpegi argi,  
zayakoz mairuari.  
irrizko lorak*

Zarena zara,  
arnas, taupada, azal,  
egi iheskor.

Musika tarte,  
kristalezko sare,  
adrenalina.

Prosaren boza,  
pozarren dut ahotsa  
*proza* izango?

Prozac zurrupan  
halako *proezia*,  
poesiorde.

Bai balentria,  
baita ere *proeza*  
zure erronka.

...

Nolanahi ere,  
hitz lauz ala loratuz,  
nagarrez segi.

Zeozar utzi,  
horma zurian bortxaz,  
edo erraustu.

Txori ilunak,  
gora begira mutu,  
hegotan kamuts.

Arkitektura,  
aienean zintzilik  
habi hegazkor.

Teilatu malko,  
zelai gorri hautsia,  
masail malkarrez.

Kristalik ez da,  
ilusioz jazteko  
zeru mozorroz.

Urrun zolua,  
heriotz distantziaz,  
uholdetuta.

Erreka hazi  
inbasio ezjakin,  
ezabaz, ito.

Nekatu zaio,  
kroskoari ohola,  
naufragioraino.

Gainazal berri,  
hondoko bake mutu,  
geldi pausatu.

Behin betiko kai,  
ez aingura ez haize,  
arrainak hegan.

Bela jausita  
hil-oihal zerutiarra  
atseden bete.

...

Zaila bada, trenbidetik at,  
bidean mantentzea,  
ziurtasunak lokartzen bazaitu  
aukera bakarretan,  
galderak ez dira ezabatzen.  
Zeri borrokatu,  
zeri jarraitu,  
zerk garaitu zaitzan bilatu,  
aldatu nahi duzunak  
aldatzen zaituen bitartean,  
aldapak makur zaitzake,  
bihurguneak okertu,  
amore eman ezinik,  
porrotak isilpean aitortu,  
hondoratu gabe,  
naufrago izendatuta,  
haikuz, baladaz, kantuz  
trajedia zigilatu.